



TOLOMENDI Tolosaldeko LGEk, JAN TOLOSALDEA proiektua jarri du martxan, eskualdeko 2015-2020 LGP-PDRean jasotzen diren helburu orokorrekin bat eginez: Herri iraunkorrak lortzea eta baserri iraunkorrak izatea. Halaber, helburu hauek barnebiltzen dituen ildo-estrategikoak lantzen ditu JAN TOLOSALDEA proiektuak.

1. **Ekonomikoki bideragarriak diren baserriak**
2. **Ingurunearekiko errespetuzkoak diren baserriak**
3. **Sozialki iraunkorrak diren baserriak**
4. **Elikaduran ahalik eta burujabeenak diren herriak**
5. **Energian autonomi maila handiagoa duten herriak**
6. **Ekonomia lokalean oinarritutako herriak**
7. **Mugikortasun iraunkorrean oinarritutako gizarteak**
8. **Sortzen den zaborraren kudeaketa iraunkorra duten herriak**
9. **Herritarren bizi kalitate duina bermatzen duten herriak**

“Jan Tolosaldea” Tolomendik Tolosaldeko Elikadura Onaren Plangintza osatzeko martxan jarritako proiektua da. “Zer jan, hura izan” esaeraren filosofian oinarritzen da, **jatearen ekintzak gizarte baten izate eta garapenean duen eragina** aintzat hartuz. Proiektuak denboran jarraitua izateko bokazioa du, eta nolabait aterki bat izatea du helburu, eskualdean gai hauek **ikuspegi bateratu eta koordinatu batean garatzeko**.

Bere **helburuen** artean, honako hauek aurkitzen dira:

1. Landa Ingurunea babestea, elikadura babesteko.
2. Tolosaldeako elikadura sistema eraldatzeko saiakera xume baino irmoa abiatzea
3. Bertako elikagai ekoizleentzako merkatuak gehitzea.
4. Elikaduraren sisteman parte hartzen duten eragile desberdinen, elkarlana, egituraketa eta antolaketak bultzatzea.
5. Bertako elikagaiak garatzeko eta bultzatzeko oinarrizko azpiegiturak sortu edo egokitzea.
6. Elikadura aniztasuna babestea, Euskal kulturaren osagai garrantzitsua baita.





Helburu hauek elikagai ekoizleen eta, orokorrean, elikadura sistema hau osatzen duten guztien saretzea gauzatuta betetzen joango gara. Beraz, garapena, bakoitzak dituen interes eta espazio pertsonalak errespetatuz, **besteekin konpartitu ditzaketen interes edo arazoei aurre egiteko elkarguneak identifikatu eta sortzetik** etorriko da.

Baserritarren arteko elkarlana bultzatzerakoan, **elkarlana bat egiten duten espazio eta interes guneetan bakarrik** gauzatuko da. Gainerakoan, bakoitzak bere autonomia mantenduko du.

Tolosaldeko Elikadura Ona Sistema garatzeko, ezinbestekoa da kontsumitzaileari **bertakoaren aldeko hautua** egitea erraztea, **kontzientziazio eta heziketaren bidez**, bertakoarekiko atxikimendua lortzeko. Horretarako, hainbat ekintza orokor eta zehatz burutuko dira. Orokorren artean, honakoak aipa daitezke: bertako elikagaien merkaturatzea handitu, produktu berriak ekoiztu eta lehengoak eguneratu, kalitatea bermatu lehendik ekoizten diren produktuetan eta kalitate handiko berriak sortu, ekoizpen berriak garatu, komertzializaziorako egiturak eguneratu edo berriak sortu, merkatu berriak topatu edota sortu, eta produktuen eskuragarritasuna handitu.

Helburu hauekin bat egitean, konpromiso hauek hartzen dituenak onartzen ditu bere gain:

- Jan Tolosaldea proiektuan parte hartzea, bere eskumenen esparruan, eta eragile sustatzailearekin jarraipen bilerak egitea.
- Une jakinetan Jan Tolosaldea proiektuaren bitartez bere egin daitezkeen jarduerak eta hartu daitezkeen konpromiso berriak puntualki jakinarazita.
- Jarduera bereziak egitea bertako produktuaren eta gure ingurunean ekoizleek egiten duten lanaren balioa agerian jartzeko.

